

## UDAL JABEGO EDO ADMINISTRAZIOPEKO BIDEEN APROBETXAMENDU BEREZIA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

### 1. artikulua.-Helburua

Udal honek, Toki Errejimenaren Oinarrien 7/85 Legearen 25. artikuluan aurrikusitakoarekin, Toki Korporazioen Ondasunei buruzko Araudiarekin eta honekin zerikusia duten gainontzeko legezko arau guztiekin bat, udal jabego edo administraziopeko bideen erabilera arrunta, berezia eta normala araupetzen du, beraietan ibil-tzen diren pisu haundiko ibilgailuen eraginez geratzen diren egoera txarra ekiditzearren, batez ere baso-ustiakuntzak dauden lekuetatik egurra eta apeak garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuen eraginez.

### 2. artikulua.-Ezargunea

Arau honek Arratzuko udalerrri osoan izango du indarra.

### 3. artikulua.-Baimena

Udal jabego edo administraziopeko bideetan zehar ibili behar duten garraiolari eta kontratistek dagokien baimena eskatu beharko dute, hurrengo datu hauek zehaztuz:

- a) Jabearen edo kontratistaren nortasuna agertzen duten datuak.
- b) Garraiaketarako erabiltzen diren ibilgailuen datuak, matrikula, egingo den bidai kopurua, bidaiko garraiatuko den zama zehaztuz eta egingo den ibilbidea kokagune planoan adieraziz.
- c) Garraiatuko den zamaren bolumena, estereo edo tonatan.
- d) Garraiaketak hasiko eta amaituko diren datak.
- e) Materiala nonbaiten bilduko bada, non izango den, planoetan azalduz.
- f) Materialaren jatorria dagoen mendia edo lekuaren izena eta kokagunea, hala balitz, erreferentzia katastrala ere zehaztuz.
- g) Hala balitz, egingo den talaketarako baimena, basoen arloaz arduratzen den agintariak emana.

### 4. artikulua.-Debekuak

Ezin da erabili:

- Har ibilgailurik.
- Katez edo elkar lotutako ibilgailurik.
- Zolu gainean irristatzeko ibilgailurik.
- Errodadura bandadun ibilgailurik.
- Gehienezko orotarako pisua 26 tonakoa baino haindiagoko ibilgailurik ezta hiru baino ardatz gehiago duen kamioirik.

### 5. artikulua.-Erabakitzeko epea

Baimena eskuratzeko prozedurarako eperik luzeena aurreragoko 3. artikuluan zehaztutako betekizunekin egindako eskabidea aurkeztu eta hilabetekoa izango da, epe honen ondoren, inolako ebazpenik zehazten ez bada, baimena emandakotzat hartuko delarik.

### 6. artikulua.-Tasak

1. Udal baimena emandatzat jotzeko, edozein kasutan, ezarriko diren tasak ordaindu beharko dira aurretik, bien bitartean ezin izango delarik bideetatik ibili ezta aprobetxamenduari ekin ere.
2. Tasak ez badira ordaintzen, baimena kendu egingo da besterik gabe.
3. Bideen erabiltzaileek ordaindu beharko dituzten tasak dagokien Ordenantza Fiskalean xedatutakoaren arabera zehaztuko dira.

### 7. artikulua.-Luzapena

Baimenan zehaztutako egunerako aprobetxamendua oraindik amaitu ez bada, luzapena eskatu beharko da.

#### 8. artikulua.-Agiriak erakustea eta zaintza

Garraiolariak, garraiaketari ekiten dion denboraldi osoan zehar, baimena eman duen udal erabakiaren jatorrizko agiria edo kopia eta tasa ordaindu eta fiantza jarri direla direla erakusten duten egiaztagiriak eraman beharko ditu. Aipatutako agiriok udaltzain edo udal agintariei erakutsi beharko zaizkie, hauek hala agintzen duten guztietan.

#### 9. artikulua.-Bermea

Baimena eskatzen duenak, bideak erabiltzen hasi aurretik, berme bat ordaindu beharko du, bideak erabiltzeagatik eragin litzakeen kalteengatik erantzungo duena.

Fiantza hau dirutan edo eragin litezkeen kalteengatik erantzungo lukeen banketxeko bermez egin ahal izango da. Era berean, Udalarekin konponbide hau eginez gero, fiantza aseguru polizaren bidez ere egin ahal izango da.

Bermearen zenbatekoa hurrengo eskala honen arabera zehaztuko da:

##### A) Metro kubikotan:

15 m<sup>3</sup> arte: Salbuetsita.

15 eta 44 m<sup>3</sup> artean: 150,25 euro.

45 eta 89 m<sup>3</sup> artean: 300,50 euro.

90 eta 134 m<sup>3</sup> artean: 450,75 euro.

135 eta 199 m<sup>3</sup> artean: 692 euro.

200 eta 299 m<sup>3</sup> artean: 1.052 euro.

300 eta 399 m<sup>3</sup> artean: 1.352 euro.

400 eta 499 m<sup>3</sup> artean: 1.653 euro.

500 eta 599 m<sup>3</sup> artean: 2.104 euro.

600 eta 699 m<sup>3</sup> artean: 2.404 euro.

700 eta 799 m<sup>3</sup> artean: 3.005 euro.

800 eta 899 m<sup>3</sup> artean: 3.456 euro.

900 eta 999 m<sup>3</sup> artean: 3.907 euro.

1.000 eta 1.199 m<sup>3</sup> artean: 4.508 euro.

1.200 eta 1.399 m<sup>3</sup> artean: 5.108 euro.

1.400 eta 1.599 m<sup>3</sup> artean: 5.710 euro.

1.600 eta 1.799 m<sup>3</sup> artean: 6.311 euro.

1.800 eta 1.999 m<sup>3</sup> artean: 7.212 euro.

2.000 m<sup>3</sup> edo gehiago: 8.414 euro.

##### B) Estereotan:

35 arte: Salbuetsita.

35 eta 99 artean: 150,25 euro.

100 eta 199 artean: 300,50 euro.

200 eta 299 artean: 450,75 euro.

300 eta 399 artean: 692 euro.

400 eta 499 artean: 902 euro.

500 eta 599 artean: 1.082 euro.

600 eta 699 artean: 1.352 euro.

700 eta 799 artean: 1.503 euro.

800 eta 999 artean: 1.803 euro.

1.000 eta 1.199 artean: 2.104 euro.

1.200 eta 1.299 artean: 2.404 euro.

1.300 eta 1.599 artean: 2.704 euro.

1.600 eta 1.799 artean: 3.005 euro.

1.800 eta 1.999 artean: 3.456 euro.

2.000 eta 2.199 artean: 3.907 euro.

2.200 eta 2.499 artean: 4.508 euro.

2.500 edo gehiago: 6.010 euro.

Bide bat erabili ahal izateko jarritako bermeak ez du baliorik izango beste bide bat erabiltzeko, aprobetxamendu biak batera egiten baldin badira ere.

Fiantza itzultzeko prozedura ebazteko gehienezko epea berau eskatu eta hilabetekoa izango da. Epe horren ondoren erantzunik ez bada, baiezko ondorioak sortuko ditu.

#### 10. artikulua.-Bideen garbiketa

Aprobetxamenduaz baliatzen direnek, edozein kasutan ere, bermatu egin beharko dute bideok edozein erabilgarritasunerako prest izango direla, aprobetxamenduak irauten duen bitartean beharrezkoak izan litezkeen garbiketak eta konponketak eginez. Hala egiten ez bada, zeregin honetaz Udala bera arduratuko da, baina kostua haien kontura dela.

Dena dela, aprobetxamenduaz baliatuko direnek, ahal duten guztia egin beharko dute bideetatiko zirkulazioarengan inolako kalterik ez eragiteko. Bideetan ezin izango da enborrik ez adarrik utzi. Gainera, ibilgailuek bideetan utzitako lurrak, harriak eta abarrak ere baztertu egin beharko dituzte bidetik.

#### 11. artikulua.-Txosten Teknikoak

Udal zerbitzu teknikoek ikustaketak egingo dituzte eta bideen egoeraren berri emango dute, aprobetxamenduaren aurretik eta aprobetxamendueren ostean dutena erkakuz. Txostenotan, argazkiak, agiri planimetrikoak, ikusentzuneakoak eta abar erabil daitezke lagungarri.

#### 12. artikulua.-Konponketa lanak

Txosten teknikoa ikusita, baimena eman zaiolari bideetan egin beharreko konponketen berri emango zaio, hala balitz, lanoi ekiteko epea ere jakinaraziz. Epe hori bukatu ondoren konponketok egin izango ez balira, Udalak berak ekingo dio zergegin honi haren kontura, kostua alde aurretik ezarritako fiantsatik kenduko duelarik. Fiantzako dirutza nahikoa izango ez balitz, falta den zenbateko guztia eskatuko da harik eta kalte guztiak ordaindu arte.

Egindako kalteak konpontezinak badira, hondatutako ondasunen edo egindako kalteen balio berdina ordainduko zaio Udalari.

Pertsona edo enpresa bat baino gehiago udal bide berberak batera erabiltzen aritzen direnean, eta kalterik sortuko bada, erabiltzaile guztien artean erantzukizuneen proportziozko banaketa egingo da.

#### 13. artikulua.-Bitartekaritza, itunebiea eta arbitraia

Kalteen edo konponketen balorazioa dela eta Udalaren eta erabiltzailearen artean adostasunik ez balego, bi alderdiok, horretarako ados jarrita, bitartekaritza, itunebide eta arbitraiazko auzitan sartu ahal izango dira, dena dela honetarako hitzarmena, itunea, adostasuna edo kontratua sinatu beharko dutelarik. Kasu honetan, auziokatik sor litezkeen gastuak erabiltzailearen kontura izango dira.

#### 14. artikulua.-Baja aitortzea

Aprobetxamendua amaitzen denean, interesatuak behartuta daude bajaren aitormena egitera. Berau, Udal Administrazioan bertan egingo da eta aurkezten den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

#### 15. artikulua.-Jabeen erantzukizuna

Ordenantza honetan xedatutakoaren ondorioz sortzen diren obligazioak betetzeko erantzule solidarioak izango dira garraiatutako materialen jabeak.

#### 16. artikulua.-Harrobiak, mehatz iharduerak eta lurrak lekuz aldatzea

Udal jabego edo administraziopeko bideak harrobien edo meha-tzen ustiakuntzatik ateratako materialak garraiatzeko edo lurrak lekuz aldatzeko erabiltzen baldin badira, Ordenantza honetan xedatutakoa ere aplikatu egingo da.

Ondorio hauetarako, eskatzaileak ipini behar duen bermea garraiatutako den material osoaren pisua kontutan hartuta zehaztuko da, toneladako hiru (3) euritakoa izango delarik.

17. artikulua.-Baimenak ematea aldi baterako etetea

Udal jabego edo administraziopeko bide batzuk edo guztien erabilerarako baimen ematea eten ahal izango du Udalak aldi baterako, eguraldiaren baldintzak edo bideen beraien egoera hala eska-tzen baldin badu.

**AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau indarrean sartuko da bere testu osoa Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratzen den biharamonean, eta indarrean egongo da espreski aldatu edo indargabetu egingo ez den bitartean.